



GORDEXOLAKO ETXEBARRIA ETA GALLARRETA AUZOETAKO HORNIDURA-SAREA HOBETZEKO OBRA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3277

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3. - Kontratuaren arduraduna:	Javier Durán Ruiz de Gaona
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratuaren xedea da Etxebarria eta Gallarreta auzoetako hornidura-sareko fibrozementuzko hodiak eraberritzea, etengabeko eta kalitatezko hornidura ziurtatzeko, HDPE DN75 hodi berria instalatuta, kilometro bateko luzeran, gutxi gorabehera. 2.- Bete beharreko premiak Gaur egun, Etxebarria eta Gallarreta auzoetako hornidura-sareak fibrozementuzko hodi-zatiak eta dentsitate handiko polietilenoazko tartekak (HDPE) ditu prekarioan, eta gabezia handiak dituzte, duela berrogei urte baino gehiago instalatu zirenetik erabilera luzea izan dutelako. Horrek hainbat matxura eragin ditu, eta, ondorioz, sarearen erabiltzaileek presioa galtzea eta emaririk ez izatea. Beraz, obra hauek egitea justifikatzen da. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratua lotetan banatuta gauzatzeak zaildu egingo luke kontratua behar bezala gauzatzea ikuspegi teknikitik. Gainera, arriskuan jarriko luke egin beharreko lan guztiak modu koordinatuan egitea. Hala, ondorioz, eragin handiagoa jasango lukete eremuko abonatuak hornidura-eten kopurua dela-eta. Era berean, lotetan banatzeak oztopatu egingo luke ingurumen-kontrolak behar bezala kudeatzea, hondakinak kudeatzea eta obretako segurtasun- eta osasun-arauak aplikatzea lanetan.
4.- CPV: - 45232150-8 Urak banatzeko hoditeriekin lotutako lanak. - 45240000-1 Proiektu hidraulikoetarako eraikuntza-lanak.
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐BAI ☒EZ



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.- Izaera juridikoa:

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**BOSTEHUN ETA HAMALAU MILA BERREHUN
ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA
HAMALAU ZENTIMO (514.272,14 EURO), BEZik
gabe.**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 514.272,14 €

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:
452.10-601.13.

- 2026. urtea: 50000,00
- 2027. urtea: 464272,14

5.-Prezioak berrikustea: ☐BAI ☒EZ

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupena guztira: SEI (6) HILABETE

2.-Epe partzialak.

☐BAI ☒EZ

3.- Luzapena

☐BAI ☒EZ

4.- Berme-epea: URTE (01) BAT

5.- Kontratua betetzeko tokia: Gordexola

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin:
(514.272,14 €)



G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika honen bidez egingo da: azken bost urteotan egindako obren zerrenda, izan kontratuari dagokion sailkapen-talde edo -azpitalde bereko obrak edo kontraturako garrantzitsuena den taldekoak edo azpitaldekoak, baldin eta kontratuak azpitalde baten baino gehiagoren lanak jasotzen baditu; betiere exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsia (514.272,14 euro, BEZik gabe) baino handiagoa bada.

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

Antzeko obretan gutxienez hamar urteko esperientzia duen obra-burua. Horrek kontratistaren ordezkari gisa jardun ahal izango du, karatularen R atalean adierazitakoari jarraikiz.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai, hautazkoa ☒ Ez

Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria: E taldea, 1. azpitaldea, 4. kategoria.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Aurkeztutako proposamena pleguan zehaztutako balorazio teknikoko irizpideen arabera ebaluatu ahal izateko, dokumentazio teknikoak memoria izango du, ondoren zehazten den ordenan eta edukian egituratuko dena:

a) Memoria teknika eta exekuzio-metodologia

- Proiektuaren analisia:

Lizitatzailerak proiektuaren azterlana egingo du eta proiektuaren dokumentazioari buruz ondorioen zerrenda sortu beharko du, ezagutza-maila agerian uzteko. Halaber, garapenean eragin dezaketen kanpo-baldintzatzaileei buruzko azterlanak eta lizitatzaileraren ustez kontratuarentzako garrantzitsuak diren bestelako inguruabarrei buruzkoak baloratu egingo dira. Besteak beste, hirugarrenei eragindako kaltea minimizatzeke azterketa baloratuko da, bai eta foru-errepidea gertu egotea ere.

- Obrako lanak aztertzea:

Obraren jarduketa nagusi bakoitzean aztertu egingo dira beharrezko eraikuntza-prozesuak eta garatzean libratu beharreko zailtasunak identifikatuko dira: kokapena, ezarpena, instalazio osagarriak, pilaketak, obrarako sarbideak, etab., eta proposatutako metodoak eta bitartekoak zehaztuko dira.

b) Obrarako jarriko diren bitartekoak eta lanen - programazioa:

- Obran erabili daitezkeen bitartekoak:

Organigrama eta obrarako proposatzen den antolamenduaren deskribapen funtzionala entregatuko dira eta lantaldea definituko da, prestasuna zehaztuta eta langileen kualifikazioa eta esperientzia azalduta. ABEEen kasuan, argi eta garbi definituko da enpresa parte-hartzaileen funtzioen banaketa. Proposatutako taldeen zerrenda xehatuko da; kopurua eta eskulanaren eta makinen dimentsionamendua zehaztuko dira, baita ere jabetza eta obrarekiko konpromisoak, ongi arrazoituta. Lizitatzailerak uste badu beharrezkoa dela lanen zati bat hirugarrenekin hitzartzea, horien izenak, erreferentziak, aurrekontuarekiko ehunekoak eta

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

konpromiso-gutunak adieraziko dira eta, edonola ere, enpresa-profila edo sailkapena. Obran erabiliko diren materialen zerrenda jasotzen duen laburpen-taula aurkeztuko da, eta bereziki jasoko dira obrarako kritikoak direnak.

- Hodiak.
- Balbulak
- Eskainitako materiala loteslea izango da eta horixe izango da kontratistak hornituko duena adjudikazioduna suertatzen baldin bada.
- Obraren plangintza orokorra:

Obrak garatzeko plangintza orokorra koherentea izatea baloratuko da eta kontuan hartu beharko dira obren kokapena eta obrak egiteko proposatutako bitartekoak. Behar bezala justifikatutako lanen programazioa gehituko da obrarako eskuragarri jarritako ekipoen eta bitartekoen arabera, eta proposatutako errendimenduekin koherentea izan beharko da. Bereziki hauek baloratuko dira:

- Jarduerak definitzeko xehetasun-maila eta jardueren sekuentziaren koherentzia obra-lanak egitean.
- Ekipoei esleitutako errendimenduen definizioa eta definitutako jardueren estimatutako benetako iraupenaren justifikazioa.
- Obra-planaren definizioa. Gantt diagramaren bitartez adierazi beharko da eta bide kritikoaren azterlana eta lasaierak sortzea.

EZ DA PUNTURIK EMANGO LANEN EPEAK MURRIZTEN BADIRA

c) Ingurumen-irizpideak

Gehienez hiru punturekin baloratuko dira obrako hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatzea bermatzen duten proposamenak. Horretarako, Hondakinen Kudeaketa Planaren aurrerapen gisa taula sortu beharko da eta bertan azalduko dira obran sortuko direla aurreikusten diren hondakinak, kantitateak eta aurreikusitako tratamendua (balorizazioa edo deuseztatzea).

d) Gizarte-irizpideak

Kontratuko plantillaren berdintasunarekin lotuta ezarritako neurriak. Bi puntura arte: Kontratua betetzen duen plantillari emandako prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak berdintasunari buruz.

Dokumentazio teknikoaren edukia gehienez 30 DIN A4 orrialdetara mugatu beharko da, eta karaktereen gehieneko tamaina ez da Microsoft Worden Arial 11 kalibrea baino txikiagoa izango. Atal bakoitzerako orrialde-banaketa lizitatzailleak aukeratuko du, eta atalak modu korrelatiboan zenbakitu beharko dira. Salbuespen-kasuetan Din A1 eta Din A3 orriak erabili ahalko dira horrela aurkeztu beharreko dokumentaziorako. Orrialdeak zenbatzen direnean ez dira kontuan hartuko azalak, aurkibideak eta obrako lantaldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duten agiriak. Hala, azken informazio hori eranskin bereizi batean atxiki beharko da. Ingurumen-irizpideak baloratzeko zuzen eguneratutako ziurtagiriak emango dira eta irismena jasota egon beharko da. 30 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 30 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatuzaileak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintzako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

- Proiektua osatzen duten unitate guztien betearazpen materialeko unitate-prezioen zerrenda, hizkiekin eta zenbakiekin idatzita.

Prezio horiek eskuratzeko unitatearen kostu zuzenari % 7 gehituko zaio zeharkako kostuen kontzeptuan.

Enpresa lehiakideak konpromiso bat hartuko du. Horren arabera, adjudikazioduna bada, 2. prezioen taula beteko du bere eskaintzako prezio unitarioen zerrendan oinarrituta. Egitura egokia izango da agiri horren xedek betetzeko eta azkenean obra-zuzendaritzari entregatuko zaio zuinketa egiaztatze aktak sinatzen denetik aurrera kontatzen hasita lehen hilabetea igaro baino lehen.

- Aurkeztutako unitate-prezioak kalkulatzeko erabili diren eskulanaren, makinen eta materialen oinarritzko unitate-prezioen zerrenda.

b) Kontratuaren aurrekontua.

- Betearazpen materialaren aurrekontua, enpresa lehiakideak lizitazio-proiektuaren neurketetarako eskaintzako unitate-prezioak aplikatuz. Aurrekontu hori PRESTO programan bete beharko da eta paperezko edizioaz gain, euskarri magnetikoko beste bertsio bat ere entregatuko da. BC3 formatuan aurkeztea onartuko da aipatutako programak izan ezean.
- Obraren aurrekontua. Kalkulatzeko, aurrekontu materialari % 19 gehituko zaio gastu orokorren eta industria-irabaziaren kontzeptuan.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatuzailearen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentetza/Ordezkoa:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Kideak (titularrak/ordezkariek):

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria (titularra/ordezkarria):
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira formula matematikoekin. Balio hauek esleituko dira:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM.....	46 puntu
0,6 x BM.....	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Puntu horien balioak aurretik adierazi den K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$P_i = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Formula horien bitartez eskuratutako P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurreko K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Hauek dira zati teknikoaren irizpideak eta haztapena:

- Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia 20 puntu
- Obran erabilgarri dauden bitartekoak 25 puntu
- Ingurumen-irizpideak 3 puntu
- Gizarte-irizpideak 2 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkeztean badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enuntziazioa: Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

Zehapenen zenbatekoa:

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.

Administrazio baldintza berezien pleguaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai, Azpikontratisten zerrenda jasoko da, azpikontratutako obraren ehunekoa zehaztuta.

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatu behar.

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ



R- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Obra-zuzendaritza

Lanen kontrola eta ikuskaritza Partzuergoko zerbitzu eskudunek egingo dute obra-zuzendaritzaren bidez. Hala, kontratatutako obra zuzen egiteko ikuskaritzak, egiaztapenak eta zaintza-lanak gauzatuko dituzte, administrazio baldintza berezien pleguaren 4. eta 24. klausuletan xedatutakoa betez.

Obrako seinaleak eta kartelak

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez osatu beharko ditu proiektuaren lan-segurtasunaren eta -osasunaren azterlanean adierazitako elementuak, zehazki, obretarako sarbidea, lanak egiten diren espazioko zirkulazioa, puntu arriskutsu posibleen kokapena eta abar adierazteko, bai obra-gunean bai eta inguruetan eta mugetan ere. Gainera, administrazio baldintza berezien pleguaren 23. klausularen aginduak bete beharko dira.

Baimenak eta lizentziak

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez kudeatu beharko ditu udal-baimen guztiak, salbu eta aldarmioak, ibiak eta hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko eta abarretarako obretarako udal-lizentziak. Hala, bere kargura izango dira oso-osorik kudeaketako gastuak eta tasak. Aurreko gastutik salbuetsita egongo da bakarrik udalak obren udal-lizentziaren kontzeptuan fakturatutako zenbatekoa, hala badagokio.

Era berean, bere kargura izango dira beste erakunde batzuetan (aldundian, etab.) baimenak izapidetzeko gastuak (abalak, etab.), baldin eta haren eskumeneko eremuetan gurutzatzeak edo jarduketak egiten badira.

Baloratutako zerrendak

Kontratistak proposatutako hileko zerrenda baloratuak bc3 ziurtapen-formatuan aurkeztu beharko dira.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak jarduteko edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio obra honi, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

Ordezkar horrek eta enpresa adjudikaziodunaren agindupeko langileek ez dute inolako harreman juridikorik, lanekorik ezta bestelakorik izango partzuergoarekin kontratua indarrean dagoenean ezta kontratua bukatzean ere.